

**BIZKAIKO BADIA GAS PROIEKTUA.** Cantabriko etxeak mila milioi metro kubikoko eskaria egin dio Bilboko Portuko birgasifikazio plantari. Edukiera handitzeko eztabaida eragin du horrek proiektuaren bazkideen artean. Jaurlaritza hedatzearen alde agertu da.

# Birgasifikazio plantaren handitzeak onurak ekarriko lituzkeela dio Imazek

Bilboko Portuko birgasifikazio plantaren edukiera 9 mila milioi metro kubikotara hedatzekotan dabilta

Erredakzioa | DONOSTIA

Bizkaiko Badia Gas proiektua aldatzekotan dabilta sustatzai-leak *Cinco Dias* egunkariak atzo kaleratutakoaren arabera. Bilboko portuan ezarriko duten birgasifikazio plantarako eskariak ugaritu egin dira, iturri horren arabera, eta, beraz, hasieran erabaki baino 6 mila milioi metro kubiko gehiago ekoiztea aztertzen ari dira zuzendariak.

Bizkaiko Badia Gas proiektua onartu zutenean 3 mila milioi metro kubikoko edukiera izango zuela adostu zuten bazkideek, hots, BP British Petroleum, Iberdrola, Repsol eta Energiaren Euskal Erakundeak. Baina plantaren eskaria nabarmen hazi da ordutik. Azkeneko eskaria Cantabrico enpresak egin du. Hain zuzen ere, urteko mila milioi metro kubiko eskatu ditu enpresa horrek, Castejongo ziklo konbinatuko plantan erabiltzeko.

Horrez gain, Espainiako Ekonomia Ministerioak 2006. urtea baino lehen Cepsa taldeari toki egiteko agindu zion birgasifikazio plantako ardura-dunei, hauek horren aurka egon arren. Izan ere, Bizkaiko Badia proiektuko kide batzuk handitzearen aurka daude.

Argi gelditu zen hori Shell taldeak mila milioi metro kubikoko eskaria egin zuenean. Irlandako ESB etxeak Zornotzan eraikiko duen ziklo konbinaturako eskatu zuen kopuru hori Shellek, baina eztabaida sortu zuen eskari horrekin Bizkaiko Badia planeko zuzendarien artean. Horren aurrean, Bartzelonako birgasifikazio planta bate-ra jo zuen azkenean Shellek.

## Eztabaida Bizkaiko Badiako bazkideen artean

Hala ere, eskariaren ugaritze horrek eztabaida sortu ei du berriro ere proiektuko bazkideen artean. Aipatu iturrien hitzetan, bazkide batzuk Espainiako Administrazioarekin arazorik ez dute izan nahi eta handitzearen alde egin dute.



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Josu Jon Imaz EAEko industria sailburuak «E-business Global» konferentziaren aurkezpenean egin zituen adierazpenak. SPRIko buru Aitor Cobanera eta SEDISiko Jose Luis Larrea berarekin izan ziren.

Horrez gain, hedatzea errentagarria izango litzateke proiektuarentzat, akziodun horien arabera. Beste enpresek sinatuko liratekeen kontratu guztiak hogeitaz urterako izango lirateke. «Horrek berme ekonomikoa emango lioke proiektuari, inbertsioen errentagarritasuna ekarriko luke eta irabaziaz ziurtatuko lituzke», dio handitzearen aldeko jarrera duen bazkide batek.

Kontuak kontu, eztabaida mahai gainean dagoela diote bertako iturriek. Euren hitzetan, urte amaierarako erabakia hartuta egongo da ziurrenik. Aurrena Cantabriko enpresak egindako eskariari erantzun beharko dio Bizkaiko Badiaren zuzendaritzak. Erantzun horren arabera izango da azken erabakia, adituek diotenez.

## ESPAINIAKO GOBERNUA

### 2006rako Cepsa taldeari toki egin beharko diote Bizkaiko Badian, Madrilek derrigortu ostean

Printzipioz, ez dio inolako arazorik ikusten edukiera handitze horri Eusko Jaurlaritzak. Hala adierazi zuen behintzat Josu Jon Imaz Industria sailburuak atzo.

«Edukiera gauzatzeaz, Euskadik gas iturri zabal eta handiagoa izango luke», adierazi zuen Imazek atzo Bilbon emandako prentsaurreko batean. «Lehiakortasun handiagoa ekarriko luke horrek, merkatu ireki batean gas iturri gehiago egongo bailirateke», azaldu zuen

EAEko Industria sailburuak. «Lehiakortasun gehiago izanda, aukera gehiago izango dute bertako enpresek, gas hobearen prezio hobeagoan izango baitute, besteak beste», gaineratu zuen. Epe luzera, kontsumitzaileentzat ere onuragarria izango dela uste du Imazek.

«Gas iturri bakarra Argelia izatetik etorkizunean hiru gas sarrera izatera pasako da Euskadi eta hori aurrerapauso handia da, inondik ere», gaineratu zuen Industria sailburuak.

### Naturcorp-en pribatizazioa

Eusko Jaurlaritzak gasaren alorrean dituen aktiboak pribatizatzeko planaz ere mintzatu zen Imaz. Urtea amaitzerako, edo askoz jota 2003ko lehen hiruhilekoa pasatzerako erabakia hartuta egongo dela adierazi zuen

## BILBOKO PORTUA

### Ibilgailuen garraiorako terminal berria

Bizkaiko Badia birgasifikazioa planta Bilboko portuan eraikiko dute, eten gabe hazten ari den gune industrialean, hain zuzen ere.

Ibilgailuen trafikorako sail berri bat inauguratu berri du Bilboko portuak, eta bertako ardura-dunen esanetan, «nabarmen ugaritu da bertako garraioa orduz geroztik». Europa iparraldea eta Bilboren arteko ibilgailuen trafikoa lotzen ditu terminal berri horrek, eta bere aurreneko eskalan, Ford etxearen 297 auto deskargatu dira bertan.

Iragarpenen arabera, aste-ko 350 auto iritsiko dira bertara Brujasetik.

73.000 metro karratu dituen terminala inauguratu aurretik, Bilboko portuan bereziki Iberoamerikatik iristen ziren esportazioak soilik jasotzen ziren. Sail berri horrekin «Europako merkatura egokitzea lortu du Bilboko portuak», bertako ardura-duen hitzetan.

Industria sailburuak. Naturcorp-en pribatizazio prozesuan parte hartu nahi duten enpresek hilabete honen amaiera arteko epea dute eskaintza bat egiteko.

Imazek azaldu zuenez, «eskaintza ekonomikoari baino garrantzi handiagoa emango diote beste kontu batzuri. Energia sektoreko proiektu lehiakor bat gauzatzeko eskaintzari garrantzi handiagoa emango genioke, esaterako», gaineratu zuen. Eskaintzak jaso eta berehala azterketa orokor bat egingo dutela adierazi zuen Imazek. «Gero, bigarren fase batean, azterketa sakonago eta zehatzago bat egingo dugu», gaineratu zuen.